

36ko Gerra. Maiatzeko kronika

Adiorik gogorrena

1936ko gerrak Euskal Herrian inoiz izandako erbestealdi masiboena sortu zuen. Gainera, gizarteko esparru eta adin guztiak harrapatu zituen eta lehen aldiz inolako erantzukizunik ez zutenek ere kanpora egin behar izan zuten. Haurren kasua dugu nabarmenena: Milaka erbesteratu zituzten eta beraientzat espreski atonduriko bidaia izan zen.

JOSU CHUECA



Batzuek abentura gisa oroitzen dute itsas zeharkaldia, beste batzuk, aldiz, ondo oroitzen dira bidaia hartan izandako itsas gaitzaz eta barku frankistei zieten beldurraz.

1937KO HAURREN ELKARTEA

2007ko maiatzaren 13a

ARGIA

17

Literaturaren argitan

Martin Ugalde, *Itzulera baten historia* (1990, Elkar)

Sustraiak (han) dituena



"*Bi familia?... Baita bi bando ere...*"

"*Dirudienez, jende batzuk etxetik irten gabe egin dizkitek Amerikak, eta egiten ari ditut oraindik!... Lurrik gabe geratu naizela sentitzendiat!... eta seme-alabak sustrai gabe!*"

Martin Ugalderean eleberririk "Jon Mirande" izeneko saria jaso zuen. Ugalde erbestearen idazlea ere izan zen. Aski zuen bizi izandakoa kontatzearekin. Historia honetan, Ugaldek, neska gazte baten begietatik agertarazi zigun erbestea. Bi dira kontakizuna harilkatzeko baliatu zituen lanabesak: protagonistak aitarekin duen harremana eta bidaia.

Venezuelako Caracas, Pau ondoko Miranda, Donibane Lohizuneko *Euskalduna* hotela, Santurtziko Serantes. Egoerak beharturik bidaia izan du protagonistak, inoiz bere nahiaren kontra. Bidaia horretan familia izanen da beti, erreferentzia, baina ez beti abaroa, guda lekua

ere izan daiteke familiaren eremua.

Aitaren heriotzak akabera ematen dio eleberriri. Heriotza eta neskatxaren samina, "Honen erruz nire aitak ezin izan zuen besterik ez bazen ere beti eskatu zituen hiru gauza egin: bere lurreen hil, seme-alabetako bat ezkontuta ikusi eta bilobatxo bat ezagutu". Eleberririk honen sormen prozesua ezagutzeak, Martin Ugalde zenaren unibertsoa hobeki ulertzen lagunduko liguke.

Erbesteak, deserriak, hainbat lan eragin ditu gure literaturan. *Habana* itsasontzian joandakoen artean, Maria Dolores Goia irakaslea, Aurea Diaz de Guereñu kimikaria eta Antxon Garcia del Molino preso izandakoa ditugu. Azken honen bizitzaren kronika idatzi zigun Jokin Urainek *Gatibu sortu nintzen* liburuan (Susa 2000). Garcia del Molinok *Habanarena* du gogoan: "Euria egin zuen ontzian ginen bitartean. Pelikuletan-eta agertzen diren irudiekin parekotasuna badu horrek: irudi grisa." Urainena da ere, *Errotarría* liburua (Susa 2006). Bertan, besteak beste, erbestealdi horretako zenbait lekukotasun bildu ditu, horien artean *Habanakoak... norbaitek erantzun dezan...*

Patxi Larrión

Gazte gaztetandikan herritik kanpora...

1937ko martxoa eta urria artean, 25.000 haur inguru Bizkaia, Santander eta Asturiasko portuetatik itsasoratu ziren; beraientzat ezezaguna zen Europa urruna zuten helmuga. Ebakuazio erraldoi hori, bando nazionalako hegazkinek burututako bonbardaketen ondorio izan zen. Hainbat hirik –bereziki Bilbok– pairaturiko aire eraso odoltsuek oso argi utzi zuten frankistek behin eta berriro egindako mehatxua egia bihurtu zitekeela. Urtarrilaren 4ko bonbardaketa izan zen akuilua. Egun hartatik aurrera hasi ziren Frantziara bidaliko zituzten umeen zerrendak prestatzen. Hala ere, bi hilabete luze behar izan zuten Olerongo irlara –*Maison Heureuse* delako kolonien etxera– joanen ziren haurren lehen bidaia antolatzeko.

Frankistek hegazkinekin egindako erasoak aparte utzita, guda frontea gelditu zegoen Bizkaiko mugetan. Horregatik, gurasoek nahiago izan zuten haurrak beraiekin geratzea. Baina gauzak erabat aldatu ziren nazionalen Bizkaia aurkako erasoaldia hasi zutenean. Martxoaren 31n Durangoren aurka indarkeria osoz aritu ziren abioi matxinoak, orduz geroztik atzeguardian egon zitekeen edonor jomuga bilakatu zen. Era berean, Bilbok apirilaren erdialdean izandako txikizioek eta Gernikako sarraskiak, gurasoek haurrengandik bereizteko izan zituzketen zalantza guztiak ezabatu zituen. Hartara, Eusko Jaurlaritzak haurrak erbesteratzeke egindako deialdiak egundoko oihartzuna izan zuen. Apirilaren azkeneko egunak eta maiatzaren lehendabizikoak erabakiorrak izan ziren zeregin horretan. Umeen zerrendak prestatzen zituzten bitartean, Frantzia eta Britainia Handian haurrei babesa emateko lekuak lortu zituzten errepublikaren aldeko-

ek. Horretarako herrialde haietako hainbat batzorderen laguntza eraginkorra izan zuten: *Comité National Catholique*, *Comité d'Accueil aux Enfants d'Espagne*, *National Joint Committee for Spanish Relief* eta Frantziako Fronte Popularra.

Frantzia eta Britainia Handia abegikor

"Parte ez Hartzearen" politikari muzin eginez –era apal batean, behinik behin– Britainia Handiko eta Frantziako gobernuek ontzat eman zuten Euskal Herritik ihes egindako haurrak beraien lurretan hartzea. Izan ere, Gernikako hondamendiaren oihartzunak Britainia Handiaren ohiko jarrera neutrala bigundu zuen. Horrela, *Royal Navy*ko itsasontzien gerizpean, haur espedizioek bidea libre izan zuten, armada frankistaren *Almirante Cervera*, *Velasco* eta antzeko ontzi-suntsitzaileen mehatxutik salbu. Frantziako gobernuak, aldiz, bere itsasportuak –Girondeko La Pallice eta Pauillac, batez ere– ebakuazio horren pasabide izatea onartu zuen. Halaber, erbesteratutako haur kopuru handiena Frantzia geratzea erabaki zuten bertako agintariek.

Egiaz, Leon Blumek gidatzen zuen gobernuak ez zion Espainiako gobernu errepublikanoari inolako laguntza militarrik eman, baina bere baseek egin zitoten eskaera zuzenaren aurrean erantzun beharra zuen: Pirinioez bestaldean gerra pairatzen ari ziren sektore herrikoiei laguntzea. Ondorioz, haurren espedizio eta egoaldiak Frantziako elkarte eta laguntza batzorde askoren gestioari esker antolatu ahal izan ziren.

Santurtzitik mundura

Maiatzaren 6an hasiera eman zitoten lehen espedizioari, Santurtziko kaian. Bezperan, 2.000

haur baino gehiagok *Habana* eta *Goizeko Izarra* izeneko itsasontzietan leku hartu zuten. Lehendabizikoa, garai batean *Alfonso XIII* deituriko transatlantiko zen. Euskal gobernuak 1937ko urtarrilean konfiskatu ostean, berau izan zen haur gehiena garraiatu zuen barkua –erdia baino gehiago–. Bestea, Ramon de la Sota industria gizon abertzalearen aisialdi ontzia izan zen, honen semeak Eusko Jaurlaritzari eskaini zion gerra lehertu zenean. Itsasoratu bezain pronto, barku britainiarrek frankistek jakinarazi zieten prest zeudela konboia helmugaraino eramateko, eta zemai oro aldendu zuten horrela.

Haurren artean, Bilbo eta Ezkerraldeko herrietakoak ziren nagusi. Dena den, baziren Gipuzkoa eta Arabatik alde egindako haurrak ere –azken hilabeteetan Bizkaian errefuxiatu zirenak–. Askorentzat, etxetik kanpora egindako lehen bidaia zen. Beste askok aldiz, kostaldekoak izanagatik ere, ez zuten sekula itsas bidaia luzerik egin. *Habana* transatlantiko handia zen, baina leku guztietan ezarri zituzten haurrak: sotoan, gelatan, kubiartan... Haiekin laguntzaile gutxi batzuk zihoazen, beste inor ez. Haur pilaketa ikaragarri hori oso gogoan dute espedizio horietan joandako guztiek. Itsas zeharkaldiari dagokionez, batzuek abentura gisa oroitzen duten bitartean, besteak ondo oroitzen dira bidaia hartan izandako itsas gaitzaz eta barku frankistek zieten beldurraz.

Habana eta *Goizeko Izarrak* irekitako bideak etengabeko jarraipena izan zuen hurrengo bi hilabeteetan. Antzeko txangoak errepikatu zituzten barku horiez eta beste batzuek baliatuz. Gehienak Frantzia aldera bideratu zituzten arren, Britainia Handiko Southamptonera ere ia 4.000 haur eraman zituen transatlantiko errepublikanoak. Bilbo erortzean izan zen azken unera arte, gurasoek haurrak ontziratzen jardun zuten behin eta berriro, beraien gaztetxoak infernu hartatik atera nahian.

Habanatik Moskura

Gerrarik ez zegoen eskualdetara iristea pagotxa galanta zen nerabe eta ume horientzat. Izan ere,



1937KO HAURREN ELKARTEA

Habana transatlantikoak milaka haur garraiatu zituen Frantzia, Ingalaterra eta Errusiara. Irudian, barkua, Santurtzitik hasitako lehen bidaian. Haurrak pilatuta joaten ziren gelatan, sotoan edota kubiartan.

berean itzuli ziren sorterrira–, gehienek gerra zibila amaitu arte edo II. Mundu Gerra lehertzean egon zen arte izan ziren erbestean –Donibane Garazi, Poyanne edo Saint Christauko kolonietan, esaterako–. Baina azkenean, Eusko Jaurlaritzaren zailtasun ekonomikoek eta Frantziako gobernuak gerrako errefuxiatuengan sortutako politika estuak, kanpamenduak itxi eta haurrak itzularaztea ekarri zuten.

Jakina, salbuespenik izan zen, eta nabariena Sobietar Batasunera joandako 1.500 haurrena dugu. Horiek ere Frantziatik igaro ziren *Habanak* egindako azken bidaian. Ekainaren 13an itsasoratu ziren Santurtzin, baina Frantziako Pauillacen lehorreratu beharrean, beste barku batean Leningrado aldera eraman zituzten. Frantzian bezala, hiri horretatik hainbat lekutara bidali zituzten: Krimeara, Odesara, Moskura... Hauen zoria ezberdina izan zen. II. Mundu Gerra hasi zenean, ezinezkoa izan zuten Europan barrena itzultzea, eta berdin gerra zital hura amaitzean. Hori dela-eta Stalinen menpe zegoen sobietarren aberrian hazi eta hezi ziren, behin behineko egonaldia behin betiko bihurtuz. Ume joandakoak bueltatzeko aukera aurkeztu zitzaizkenez helduak ziren jadanik. Batzuk 60ko hamarkadan itzuli ziren, beste batzuk aldiz, halabeharrez-edo, nahiago izan zuten 1937an beso zabalik hartu zituen sobietarren aberrian jarraitu. Egun gelditzen direnak zaharrak dira, baina oraindik ere barkuetan alde egindako “gerrako haurrak” izaten jarraitzen dute. ■



aurrera doan
herria

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

Oroimen bizia
1936 - 2006
Memoria viva